**INGURUMEN ETA LURRALDE ANTOLAMENDU SAILA**

**5871**

EBAZPENA, 2008ko urriaren 6koa, Uraren Euskal Agentziako zuzendari nagusiarena, honen bidez erabakitzen da Uraren Euskal Agentziako zuzendari nagusiaren 2008ko apirilaren 3ko Ebazpenaren aurrekontua bi milioi eta bostehun mila (2.500.000) eurotan gehitzea. Ebazpen horrek arautzen ditu edateko ura banatzeko sareetara bideratutako diru-laguntzak: horien kudeaketa planak egiteko eta hobekuntza-ekintzak burutzeko.

Agindu horretako xedapen gehigarriak honakoa ezartzen du: «Uraren Euskal Agentziako aurrekontu-baliabideak kontuan izanda, 2. artikuluan adierazitako diru-kopurua aldatu egin daiteke, eskatutako diru-laguntza kopurua kontuan hartuta. Kopuru hori aldatzea edo ez aldatzea diru-laguntzei buruzko ebazpena eman aurretik erabakiko da. Halakorik egingo balitz, Uraren Euskal Agentziako zuzendari nagusiaren ebazpen bidez jakinaraziko da.»

Uraren Euskal Agentziaren aurrekontuetako diru-baliabideen soberakina ikusita, Uraren Euskal Agentziako zuzendari nagusi naizen honek, 2008ko apirilaren 3ko Ebazpeneko xedapen gehigarrian ezarritakoaren arabera, honakoa

EBATZI DUT:

***Lehenengoa.–*** Uraren Euskal Agentziako zuzendari nagusiaren 2008ko apirilaren 3ko Ebazpenaren aurrekontua bi milioi eta bostehun mila (2.500.000) eurotan gehitzea. Ebazpen horrek arautzen ditu edateko ura banatzeko sareetara bideratutako diru-laguntzak: horien kudeaketa planak egiteko eta hobekuntza-ekintzak burutzeko.

***Bigarrena.–*** Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea.

Vitoria-Gasteiz, 2008ko urriaren 6a.

Uraren Euskal Agentziako zuzendari nagusia,
TOMÁS EPALZA SOLANO.

**DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE Y ORDENACIÓN DEL TERRITORIO**

**5871**

RESOLUCIÓN de 6 de octubre de 2008, del Director General de la Agencia Vasca del Agua, por la que se acuerda incrementar en dos millones quinientos mil (2.500.000) euros la dotación presupuestaria destinada a las subvenciones para la realización de planes de gestión de las redes de abastecimiento de agua potable, así como para la ejecución de actuaciones de mejora de las mismas, al amparo de la Resolución de 3 de abril de 2008.

La disposición Adicional de la citada Resolución establece que «El importe global consignado en el artículo 2 podrá ser modificado, teniendo en cuenta la cuantía total de las ayudas solicitadas, en función de las disponibilidades presupuestarias de la Agencia Vasca del Agua y con carácter previo a la resolución de las mismas, dándose publicidad de este extremo mediante la correspondiente Resolución del Director General de la Agencia.»

A la vista de las disponibilidades presupuestarias excedentes de la Agencia Vasca del Agua, el Director General, en virtud de lo establecido en la Disposición Adicional de la Resolución de 3 de abril de 2008,

RESUELVO:

***Primero.–*** Incrementar en dos millones quinientos mil (2.500.000) euros la dotación presupuestaria destinada a las subvenciones para la realización de planes de gestión de las redes de abastecimiento de agua potable, así como para la ejecución de actuaciones de mejora de las mismas, al amparo de la Resolución de 3 de abril de 2008.

***Segundo.–*** Publicar la presente Resolución en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 6 de octubre de 2008.

El Director General de la Agencia Vasca del Agua,
TOMÁS EPALZA SOLANO.